

# **TXOSTENA MEMORIA MEMOIRE 2020**



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

[www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus)

---

**EUSKO IKASKUNTZA**

Memoria 2020 / Eusko Ikaskuntza. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2021. – 94 or. ; 23 cm.

ISSN: 0213-8662

1. Eusko Ikaskuntza I. Tit.

06 Eusko Ikaskuntza

---

Erakunde hauen babesarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Zientzia eta Berrikuntza Ministeritza.



**EUSKO  
IKASKUNTZA**  
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS - SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES - BASQUE STUDIES SOCIETY

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia

[www.eusko-ikaskuntza.eus](http://www.eusko-ikaskuntza.eus) e-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

Lege Gordailua: SS – 0512/04

Fotokonposaketa: Belén Moreno

Inprimaketa: Fasprint (Donostia)

## Aurkibidea

05	
	Aurkezpena
06	
	Sarrera
08	
	Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa
16	
	Beste proiektu eta ekimen batzuk
18	
	Sariak
20	
	Zabalkundea
24	
	Erakundea
30	
	Datu ekonomikoak

## Índice

35	
	Presentación
36	
	Introducción
38	
	Actividad científica de Eusko Ikaskuntza
46	
	Otros proyectos e iniciativas
48	
	Premios
50	
	Difusión
54	
	La Institución
60	
	Datos económicos

## Index

65	
	Présentation
66	
	Introduction
68	
	L'activité scientifique d'Eusko Ikaskuntza
76	
	Autres projets et initiatives
78	
	Prix
80	
	Diffusion
84	
	L'Institution
90	
	Données économiques



I 2020 TXOSTENA







Urteko ekitaldiko jardueren laburpena aurkeztetea dagokit hemen. Hain zuzen, Iñaki Dorronsoro Plazaolak, zuzendaritzalantaldearekin batera, lehendakari jardun duen azken ektialdia; 2021an aukeratu zuten lehen aldiz, eta 2016an berrautatu. Hau ez da Eusko Ikaskuntzaren azken zortzi urteei buruzko balantzea egiteko lekua, eta, ziur aski, ez naiz horretarako pertsonarik egokiena, baina aukera aprobetxatu nahi dut funtsezko bi ideia aipatzeko.

Lehenik eta behin, Iñaki Dorronsorori eta urte hauetan haren ondoan izan direnei gure eskerrik beroena nahi diet adierazi, eta uste dut gure bazkide gehienen iriztiaren bozeramaile naizela. Denbora, energia eta talentua eskaini dizkiote gure erakundeari, dena emanez. Bidezkoa da beraiek utzitako ondareari erantzutea, beraien lan eskuzabala goraipatuz. Eta hori guztia lotuta dago nabarmendu nahi dudan bigarren ideiarekin.

2012. urteaz gerontzik, eginkizun zail eta handi bat ekin zion Kontseilu Errektoreak: XXI. mendeko errealitateen eta erronken aurrean, Eusko Ikaskuntza berritzea eta estrategikoki birkokatzea. Lan horren emaitza da egungo Eusko Ikaskuntza, hobeto prestatuta eta behar bezala egokituta baitago, 1918an (sorrera-urtean) erakundeak bere gain hartutako xedea betetzen jarraitzeko. Egun lekuoa hartu dugunok ilusioz eta erantzukizunez beterik heldu diogu herentzia horri. Badakigu egungo egoera ez dela aurreko lantaldeak ibilbidea hasi zuen garaikoa baino errazagoa.

Horregatik guztiagatik, Eusko Ikaskuntzako bazkideok hamaika arrazoi dugu gure erakundeaz harro egoteko, batetik, euskal gizarte eta kulturaren errealitatearen aberastasuna bere osotasunean islatzen duelako, eta, bestetik, ehun urte baino gehiago daramatzalako errealitate horren potentzialtasun izugarriak sustatzen.

**Ana Urkiza  
Lehendakaria**



# SARRERA

---

Eusko Ikaskuntza 1918an sortu zen, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Aldundien ekimenez. Ofizialki zientzia- eta kultura-erakunde gisa aitortu da euskal eremu osoan, eta inguruko adminiritrazioen errekonozimendua du.

Eusko Ikaskuntzaren eginkizuna, gaur egun, gure gizartearen etorkizuna imajinatzea eta aurreratzea da, eta errealtitate berrien aurrean prestatzen gaituzten behaketa-, ikerketa-, experimentazio- eta gizarteratze-proiektuak gauzatzea; herrialde gisa ditugun erronkak identifikatzea, gizarte-beharrak aztertzea eta horiei erantzunak ematea, bai eta politika publiko berritzaile eta aurreratuak proposatzea ere. Bere eginkizunen artean daude, halaber, gizartea trebatzea eta pentsamendu kritikoa eta adimen kolektiboa aktibatzea.

Lurraldeen arteko zubi-lana egiten du, erakundeen arteko lankidetza bultzatzen du, eta, aldi berean, herritarrekiko loturak sortzen ditu eta nazioartekotzea bultzatzen du.

Erakunde irekia da, ospe handikoa, askotariko pertsona eta eragileen parte-hartzea sustatzen duena, eta elkarlaneko gobernantza oinarri hartuta, Eusko Ikaskuntzak gure gizartearen beharrei erantzun nahi die. Horretarako, 2018an, bere mendeurrenaren urtean, egindako XVIII. Kongresuan amaitu zen prozesuan definitutako lan-tresnez baliatzen da. Bestalde, euskararen erabilera sustatu eta bermatzen du eta genero-ikuspegia hartzen du.

Diziplina anitzeko ikuspegiarekin, Eusko Ikaskuntzak **maila akademiko-zientifiko altuko** proiektuak kudeatzen ditu. Lan hori guztia historikoki lortu duen **konfiantzan** eta **bikaintasunean** oinarritzen da, eta horrek, agerian uzten du partaidetza-maila eta abian jarritako ekimenen emaitzak.



## Eusko Ikaskuntzaren ezaugarriak

Dituen ezaugarri eta berezitasunengatik, leku propioa du Eusko Ikaskuntzak zientziaren eta kulturaren ekosisteman eta, bertatik, euskal komunitateen etorkizuna eraikitzen laguntzen du:

- Gure herrialdearen garapenerako **estrategikoak diren gaiak** lantzen ditu; horretarako, **agenda propia** finkatzen eta kudeatzen du.
- **Kalitatezko proiektuak** garatzen ditu; lortzen dituen emaitzak eta bultzatzen dituen proposamenak euskarri akademiko-zientifiko sendo eta egiaztatuetan oinarritzen dira.
- **Ikerkuntza-metodologia aurreratuak** erabiltzen ditu, etorkizuna prestatzeko edota trantsizioak kudeatzeko berariaz garatutakoak.
- Proiektuak prestatzeko fase guztiak **modu bateratuan** antolatzea jotzen da xedetzat; hau da: **behaketa + ikerkuntza + esperimentazioa + sozializazioa**.

- Ikerkuntza eta proposamenak guzion interesen alde bideratzen dira sozializazioaren edo prestakuntzaren bitartez, **hartzaileak ahalduntzeko helburuz**.
- **Herrialde-ikuspuntu da erakundearen jardueren ardatza**. Erreferente gisa jarduten du euskal lurrealde guztiak barne hartzen dituzten eta helburu bateratzailea duten proiektu globaletan.
- **Harreman-sare zabala** eta partaidetza-eredua dira indargune nagusiak.
- **Lankidetzan jarduteko gaitasuna** du, lan-aliantzak sortuz eta ikuspegi anitzak bermatuz.



# EUSKO IKASKUNTZAREN JARDUERA ZIENTIFIKOA

Gure herrialdearen beharrei erantzuten die Eusko Ikaskuntzaren zientzia-jarduerak, eta ikuspegi orokorreko eta epe luzerako politika publikoen norabidea ezartzen laguntzen du. Asmo horrekin, gizarte zibilaren adimen kolektiboa aktibatzen du, iraultza teknologiko globaleko testuinguru batean gauzagarriak eta desiragarriak diren etorkizunak bistaratzeo.

XXI. mendeko errealitateen eta beharren norabide berean, 1918ko sorrera-helburuak egokitzen eta eguneratzen jarraitzen du Eusko Ikaskuntzak: irismen handiko tresna estrategikoak eskaintza, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren garapena bultzatzeko. Gizarte-berrikuntza funtsezko oinarri bihurtu du, ongizatea sustatzeko eta herrialdearen, herritarren eta lurraldleen ahalmen guztiak modu jasangarrian hedatzeko, eragile politiko eta sozialekin eta herritarrekin lankidetza estuan arituz.

Erakundearen zientzia-jarduera hainbat ekintzaren bidez gauzatzen da. Hona hemen, laburbilduta:

- Pentsamendu ireki, anitz eta independenterako eremuak sortzen ditu euskal testuinguru sozialean eta testuinguru globalean.
- Behaketatik abiatuta, jakintza aplikatuaren azterketa, ikerkuntza eta garapena bultzatzen ditu, herritarra helburu hartuta, itzulkin soziala ziurtatzeko.
- Gizarte-sarearen antolamendua bideratzen du, kohesioa bultzatzeko.
- Berdintasun-irizpideei jarraitzen die eta belaunaldi arteko lana sustatzen du.
- Erakunde eta elkarteekin lankidetza jarduten du, jakintza-sareak sortzeko.



Irtenbideak arakatuz, proposamenak landuz, askotariko ikuspegia eta planteamenduetatik abiatuta guztiion intereseko ekimenak sustatzetik eta horretan guztian partaidetza ugaria eta plurala bermatuz, lanerako programak jartzen ditu Euskal Komunitate Globalaren zerbitzura.

Arlo estrategiko bakoitzean, hausnarketa- eta ikerkuntza-programen kalitate zientifikoa eta bikaintasuna bermatzeko, Ikerketa Egitasmo Batzordea, IEB, sortu da. Eusko Ikaskuntzaren zuzendaritza eta Kontseilu Errektoreko hiru ordezkariz gain, kudeaketaz eta dinamizazioaz arduratzen diren barne-langilek eta kasuan kasuko arloan ibilbide ezaguna duten kanpoko adituiek osatzen dute Batzordea.

## 2020. urteko proiektuak

Erakundeak sei arlo estrategiko jorratzen ditu:

- Gazte Agora. Gazteen mugaz gaindiko lankidetza-sareak.
- GizarteLAB: trantsizioak bultzatzu.
- Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza.
- Lurralde-burujabetzako gatazkak Europan: jardunbide egokiak eta gatazkak konpontzeko proposamenak.
- Lurralde-oreka.
- Ongizate-ereduak Euskal Herrian.

## Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa



### Gazte Agora. Gazteen mugaz gaindiko lankidetza-sareak

Eusko Ikaskuntzak zuzentzen du **Gazte Agora. Gazteen mugaz gaindiko lankidetza-sareak** proiektua, Euskadiko eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluen laguntzarekin eta parte-hartze aktiboarekin.

#### Helburuak:

Proiektuaren helburua da euskal lurraldleen arteko gazteen lankidetza-sarea sortzea, elkar ezagutzeko eta sektore desberdinen inguruko ezagutza bultzatzeko.

Egitasmoa mugaz gaindiko gizarte-berrikuntzako ariketa bat da, EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko gazteengan oinarritua. Hainbat diziplina jorratuz, elkar ezagutzea eta balio partekatuak sortzeko.

Proiektuaren lehen fasean, 2019-2020 aldian, gazteen kezka eta erronka komunak identifikatzen saiatu da, eta, era berean, gazteen eta gazte-elkarteen arteko lankidetzako lana sustatzeko oinarriak ezartzen. Azken finean, jakintzatik abiatuta eta ikuspegi estrategikoari atxikita, gazteak gaitzeko, konpromisora lotzeko eta antolatzeko prozesuak bultzatzen eta babesten ahalegindu da, gazteak herri-proiektu beraren beste oinarri bat izan daitezen.

Lehen fase horretan, lau arlotan bultzatu da ezagutza eta esperientziaren elkartrukea: hezkuntzan (formala eta ez-formala), gobernantzan (parte hartza eta

ahalduntzea), sozio-ekonomian (ongizate materiala) eta hizkuntzan (euskarra eta hizkuntza-politikak). Aldi berean, lehen ariketa horretan, lurralte arteko lankidetzarako tresnak identifikatu ahal izan dira.

#### 2020ko jarduerak

Gazteen eta gazte-erakunde eta -elkarteen arteko lanaren bitartez diagnostikoa eta kontzeptualizazioa finkatu zen lehen fasean. Ondoren hiru partaidetza-foro antolatu ziren, bata Donostian (2019ko abenduaren 14an), bestea Iruñean (2020ko otsailaren 8an) eta azkena Baionan (2020ko maiatzaren 9an). COVID-19ak baldintzatuta, Baionako foro hori atzeratu eta online antolatu behar izan zen.

Pandemiaren eraginez, foro hauen emaitzen berri emateko mugaz gaindiko foroa Donostian egiteko asmoa zegoen arren online gauzatu behar izan zen.

Lan horren guztiaren emaitza da “Gazteen aniztasuna eta gobernantza-eredu berriak: Gazteen mugaz gaindiko lankidetzarako oinarriak” txostena. Lanaren oinarritzko lau gaien inguruko azterketa (kezkak, erronkak eta instituzionalizatze-proposamenak) eta akordioak (erronka eta helburu komunak, eta lankidetzarako proposamenak) jaso dira txostenean, lurralte bakoitzaren berezitasunak zehaztuz.



## GizarteLAB: trantsizioak bultzatzu

GizarteLAB gizarte-berrikuntzako programa bat da, Eusko Ikaskuntzak diseinatua eta ezarria, funtsezko trantsizioek planteatzen dituzten erronkei eman beharreko erantzunetan aurrea hartzeko. Egitasmo horrek arreta berezia eskaintzen die trantsizio-gaitasunak garatzeari eta ekimen esperimentalak diseinatzeari, herritarren ikuspegitik, trantsizioen agenda baten bitartez.

Zehazki, biztanleria zahartzeari eta trantsizio ekologikoari lotutako erronkei ekin nahi zaie. Bi arlo horietako trantsizio-gaitasunetan trebatzeko asmoz, tokian tokiko (hiria, herria, etab.) ahultasunak ebaluatzea, irtenbide-ereduak zehaztea eta esperientziak arian-arian ezartzea proposatu dute GizarteLABeko tailerrek.

### Helburuak:

Helburu orokorra erronkak identifikatzea eta trantsizioen inguruko gaitasunetan trebatzeko planak diseinatzea da. Biztanleak gizarte-gaitasunetan trebatzea, alegia, etorkizun huribileko erronka demografiko eta ekologikoei aurre egiteko.

### 2020ko jarduerak

#### **Trantsizio Ekologikoa**

Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Jaurlaritzak antolatu zuten Trantsizio Ekologikorako Etorkizunen Diseinua

ikaskuntza-programa. Online egin zen, bi fasetan. Lehen fasean, maiatzaren 27tik ekainaren 10era bitartean, hiru hitzaldi eskaini ziren, esperientzia-arlo bakoitzean erreferenteak diren pertsonak hizlariak izanik (Elena Moreno, Mikel González-Eguino, Isabel Elizalde, Aitor Zulueta, Arantza Acha eta Alex Fernández Muerza). Bigarren modulua partaidetza-tailerra izan zen; taldeka banatuta, elkarlanean aritu ziren, ekainaren 17tik eta uztailaren 15era bitartean.

Programa amaitu zenean, “Hiritartasun Dibergentea: Etorkizun eko-zentriko baterantz” ekintza-manifestua aurkeztu zen, gizarte ekozentriko baterako trantsizioa errealitate bihurtzeko gai izango zen biztanleria dibergentearen aldeko aldarrikapena eginez.

### **Erronka demografikoa**

Herritarra erronka demografikoei bestelako erantzun berritzaileekin aurre egiteko gaitza eta ahalduntzea; horixe izan zen azaroaren 20tik abenduaren 2ra online egindako lau prestakuntza-tailerren helburua. Eusko Jaurlaritzarekin eta Laudioko Udalarekin lankidetzan antolatu ziren. Tailer horietan, besteak beste, arazoei eta balizko irtenbideei buruzko informazioa interpretatzeko gaitasunak eta komunitateak eraikitzeko eta pertsona askoren arteko lankidetza-harremanak egituratzeko beharrezko trebetasunak landu ziren.

## Eusko Ikaskuntzaren jarduera zientifikoa



### Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan: bizikidetza

2019an ekin zion bideari Eusko Ikaskuntzaren lan-programak, Nafarroako Foru Gobernuaren babesarekin, lurralte horretan bizikidetzaren indarguneak eta ahulguneak sakon aztertzeko helburuz. Baztan, Berriozar eta Castejón udalerriak aukeratu ziren Nafarroako geografia- eta identitate-aniztasuna islatzeko. Herritarren mahaiak eta gizarte-foroak egin zituzten udalerritik horietan; parte-hartzaile gehienek askoren arteko elkarriketaren eta hurbilketaren aldeko jarrera hartu zuten. Hala ere, Nafarroako gizartearen zatiketa- eta gatazka-iturri nagusia hizkuntza-aniztasuna dela ikusi zuten. Ondorioz, azterlanaren bigarren fasearen ardatza ondorengoa izan da: euskara eta identitate nazionalen inguruko polarizazioa, sarritan elkarri loturik baitaude.

#### Helburuak:

- Herritar gehienek onartzten dituzten edo onartuak izateko aukera gehien dituzten nafar identitatearen osagaiak zein diren zehaztea (elementu bateratzaileak).
- Nafarroako herritarren artean zatiketa- edo gatazka-iturri izan daitezkeen nafar identitatearen osagaiak identifikatzea (desadostasuna dakarten elementuak).
- Elementu bateratzaileak indartzeko ekimen eta fororik egokienak aukeratzea, eta erantzukizunik handiagoa izan beharko luketen erakunde, talde edo komunitateak zein diren zehaztea.

- Nafarroako aniztasunaren kudeaketa demokratikorako bidean aurrera egiteko, desadostasunak sortzen dituzten elementuak gainditzeko ekintzarik eraginkorrenak finkatzea, adostasun berriak gauzatzea eta erantzukizunik handieneko taldeak, erakundea edo komunitateak zehaztea.

### 2020ko jarduerak

Programa honek bi ardatz ditu: batetik, aniztasuna eta elkarbizitza; bestetik, aniztasunaren eta elkarbizitzaren kudeaketa demokratikoa, adostutako gutxieneko baldintzak bilatzu.

2020. urtean, hiru partaidetza-eremu handi landu ziren: Adituen Taldea (bost batzar), Gizarte-eragileen Mahaia (bi batzar) eta Herritarren Mahaia. Batzarrokin aurrez aurre egiteko asmoa zegoen arren, pandemiaren ondorioz modu birtualean egin ziren saio guztiak.

Emaitzetatik abiatuta, prozesuaren deskribapena eta ondorioak jasotzen dituen txostenen prestatu zuen Talde Eragileak.

Nabarmenzekoa da egitasmo hau Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak bultzatutako Bizikidetzako I. Plan Estrategikoaren barruan sartzeko asmoa dagoela. Plan horrek Nafarroako bizikidetzaren egoera aztertzeko, ikertzeko eta eztabaideatzeko eremu ugari sortu asmoz.



## Lurralde-burujabetzako gatazkak Europan: jardunbide egokiak eta gatazkak konpontzeko proposamenak

Eusko Ikaskuntzak 2018ko azaroaren aurkeztu zuen “Mendeurreneko Adierazpenean” jasotako ondorioen eta proposamenen artean, gizarte-ongizatera bideratutako lankidetzako gobernantza baten beharra aipatzen da, berariaz. Gobernantza horren bidez, erabakitzeko gaitasuna indartuta, ahalik eta adostasun gehien lortzeko eta desadostasunak kudeatzeko gai izango lirateke herritarra. Era berean, erronkatzat jotzen da Europako etorkizunari buruzko eztabaidean parte hartzea, Europako esparru instituzionalean herrien eginkizuna indartzeko. Horixe da, izan ere, lan-programaren abiapuntua.

### Helburuak:

Europan dauden lurralde-burujabetzako gatazkak konpontzeko jardunbide egokien oinarria prestatzea da ekimenaren xede nagusia.

- Europako estatuetako burujabetza-gatazken konponbide demokratikoari buruzko eztabaidea publikoa bultzatzea.
- Gaiari buruzko hausnarketa akademikoa sustatzea, eta elkarren arteko ezagutza eta sinergiak indartzea, batez ere nazioarteko adituen artekoak.
- Akademiatik, lankidetzaren bidez, lurralde-gatazkak konpontzeko ekarpenak egitea, nazioarteko, Europako eta estatuetako agenda politikoan eragina izateko.

### 2020ko jarduerak

#### *Lurralde-burujabetzako gatazkak Europan: jardunbide egokien kode baterantz*

Azaroaren 11tik 13ra, Burujabetzako lurralde-gatazkak Europan: jardunbide egokien kode baterantz nazioarteko jardunaldiak egin ziren, online egin ere, baina azken egunean Bilbon elkartu ziren, modu presentzialean. Jardunaldiak Institut d’Estudis Catalans-ekin batera antolatu ziren, Euskal Herriko, Kataluniako eta Europako hogeit bat erakunderekin lankidetzan.

Nazioarteko erreferentziazko aditu akademiko, instituzional eta sozio-politiko ugarik hartu zuten parte, eta beraien ekarpena egin zuten europar proiektu komunaren nondik norakoei, antolamenduari eta demokratizazioari buruzko hausnarketan, gaur egungo testuinguruaren azterketatik abiatuta konponbiderako agertoki berriak ezartzen laguntzeko. Burujabetzako lurralde-gatazkak konpontzeko jardunbide egokien kode bat prestatzeko oinarriak agiria aurkeztu zen.

#### *Europa, etorkizun federala edo konfederala?*

Coppieters eta Ezkerraberri fundazioekin lankidetzan, mahai-ingurua antolatu zen Bilbon, uztailaren 20an, “Europa, etorkizun federala edo konfederala?” izenburuean. Europako Parlamentuko lau kidek hartu zuten parte: Izaskun Bilbao Barandicak (EAJ), Pernando Barrena Arzak (EH Bildu), Toni Cominek (JxCat) eta Jordi Solék (ERC).



## Lurralde-oreka

Landa-eremu asko hutsik daude dagoeneko, biztanlerik gabe ari baitira geratzen. Gainbehera horri aurre egiteko, nahitaezkoa da diagnostiko egokiak egitea eta, horietan oinarritura, planak, alternatibak eta ekimenak prestatzea, arazoa konpontzeko eta ondorioak ezagutzen emateko.

### Helburuak:

- Euskal Herriaren egoera sozioekonomikoa, demografikoa eta lurralde-orekarena aztertza, kategorizatzea eta arazo komunak identifikatzea.
- Sareak sortzea eta interesdun eragile, erakunde eta herriarren arteko lankidetza bultzatzea, mugaz gaindiko lana sustatzuz.
- Elkar ezagutza bultzatzea eta gure eremuko eta beste herrialde batzuetako jardunbide egokiak eta esperientzia aberasgarriak hurbiltzea, politika publikoei ere arreta eskainiz.
- Narratiba berriak biltzea eta ezagutzen ematea. Aniztasunetik abiatuta, estereotipoak haustea eta landa-munduak eskaintzen dituen aukeren eta alderdi erakargarrien inguruko ikuspegi positiboa eskaintza.

## 2020ko jarduerak

### *Arabako landa-eremuaren Kontakizuna eta Estilo-liburua*

Arabako Foru Aldundiak landa-eremuaren inguruko diskurtsoei eta narratibei buruzko azterlana egiteko

eskatu zion Eusko Ikaskuntzari. Horren baitan, bi txosten egin dira, 2021ean argitaratuko direnak. “Arabako herriean biziaren aldeko ahotsak” da lehena, eta, Arabako landa-eremuko diskurtsoak eta balioak aztertzeaz gain, lurralde- oreka eta -kohesioa handitzeko bidean esku hartzeko hainbat proposamen aurreratzen ditu. “Lurralde-orekarako estilo-liburua” da bigarrena, herriei eta lurralde-aniztasunari buruzko tratamendu komunikatiborako gida.

### *Asturiasekin aliantza*

Maiatzan lankidetzako agiria sinatu zuten Eusko Ikaskuntzak eta Asturiasko Printzerriko Gobernuko Erronka Demografikorako ordezkariek. “Zer ekonomia herri txikiatarako?” da agiriaren izenburua, eta biztanle-dentsitate txikiko udalerri eta toki-erakundeen gizartea eta ekonomia suspertzeko oinarri kontzeptualak ezartzen ditu.

### *Beste ekimen batzuk*

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioak Despopulatzeari buruzko Jardunaldiak antolatu zituzten, otsailaren 28an eta 29an, eta bertan parte hartzeako gonbidapena jaso zuen Eusko Ikaskuntzak. EHUREn uda-ikastaro batean ere parte hartu zuen Erakundeak, Zerainen, irailaren 18an. Herri txikiak: auzolanaren kulturatik eta balioetatik etorkizunera gaia jorratu zen azken horretan.



## Ongizate-ereduak Euskal Herrian

Herritar guztiak babestuko dituen ongizate-eredu baten alde aritzeak lurralte- eta gizarte-kohesioan aurrera egitea dakarrela ulertuta, EAEko, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko ongizate-sistemen errealityeak hobeto ezagutzea da proiektuaren xedea.

Euskal Herri osoko gizarte-ereduen, politika publikoen eta gizarte-zerbitzuen inguruko gizarte-berrikuntzako azterketa egiteko asmoa du, eta lurralte guztiak eragileak elkarrekin harremanetan jartzeko nahia ere bai.

### Helburuak:

- Gai horretan diharduten erakundeen eta eragileen arteko harremana bultzatzea, baita lurralte ezberdinako herriarren artekoa ere, errealityeak, esperientziak, jardunbide egokiak eta politika publikoak alderatzeko.
- Ongizate-sistemari dagokionez, lurralte bakoitzak gaur egun zertain den jakitea eta ezagutzera ematea.
- Berariazko azterlanen beharrak identifikatzea eta azterlan horiek egitea edo egin daitezen sustatzea.
- Ongizatearen arloan lurralteen arteko lankidetzarako bide berriak arakatzea.

## 2020ko jarduerak

Ongizateko Politiken eta Gizarte Zerbitzuen esparru guztien artean, mendekotasunaren eta zainketen gaia aukeratu zen lehen sektore-azterlanari ekiteko. Azterlana 2020an zehar egin zen, eta 2021ean kontrastatu eta ezagutzera emango da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak koordinatuta eta UPNAren eta Association Echarry Formation Développement elkartearren parte-hartzearekin, Ongizate-ereduak Euskal Herrian proiektuaren lantalde zientifikoak garatutako ikerlanak mendekotasunaren arreta-sistemak ditu aztergai EAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Zehazki, funtsezko gaiak ikertzen ditu: besteak beste, lurralte bakoitzak nola erantzuten dien mendekotasunaren eta zainketen erronkei; zein diren sistemaren oinarrizko ezaugarriak; egitura demografikoa; eskumenen egitura; zerbitzu eta prestazio nagusiak; langileria eta finantzazioa... Gainera, hainbat ondorio, erronka komun eta gomendio plantearuko ditu.

# BESTE PROIEKTU ETA EKIMEN BATZUK



## **Artitz, Bilboko Guggenheim Museoaren Dokumentazio Zentroa**

2017az geroztik, euskararen, dokumentazioaren eta teknologiaren arloetako esperientzia eta jakintza eskaizten zaio Artitz online plataforma, hura aberasteko. Bertan, Guggenheim Museoak antolatutako arte-erakusketen inguruan sortutako dokumentazioa eta eduki nagusiak euskaraz daude.

<https://www.guggenheim-bilbao-artitz.eus>

## **Udalak**


Udalekin hitzartutako balizko lanen katalogoa berritu zenberriitu zen 2017an, Eusko Ikaskuntzaren funtzionamendu- eta egitura-eredu berriarekin bat. Ordutik, Euskal Herriko 70 udalek baino gehiagok berretsi dute gure erakundearen aldeko babesa.

Udalen artean banatzeko prestatutako 2020ko katalogoak bi lan-ildo nagusi jorratu zituen: Liburu Zuria eta etorkizuneko erronkei buruzko agenda; Historiaren eta ondarearen azterketa eta interpretazio-planak.

## **Bilbo: Sinposioa**

Bilboko Udalarekin batera ekonomia feministari buruzko sinposioa antolatu zuten, Emakunderen laguntzarekin. Azaroaren 5ean egin zen, online formatuan.

Bizitza erdigunean: nolako politika publikoak behar ditugu? izenburuak adierazten duen bezala, pertsona guztien beharrak asetzeko eta sistema patriarkala gainditzeko gai izango den politika ekonomiko bat dagozkion ezaugarriez mintzatu zen.



## Busturia: Berrezarkuntzatik frankismora

Otsailaren 20an, Lankidetza bildumako bi liburu aurkeztu ziren: Busturia (1916-1937): Berrezarkuntza, diktadura, II. Errepublika eta Gerra Zibila (66. alea) eta Busturia (1937-1945): Lehen frankismoa (67. alea), biak ala biak Xabier Acosta Herrero historia-ikertzailearenak.

## Getxo

Eusko Ikaskuntzak egindako Algortako Portu Zaharreko Ondarea Interpretatzeko Planaren barruan, turismo-liburuxka eta flyerra eguneratzeko lanei ekin zitzaien 2020an, baita auzoko nortasunaren bereizgarria sortzeko lanari ere eta logotipo eta isotopo sortuz.

## Mundaka

Udalerriko historia- eta kultura-ondarea ikertzeko, biltzeko eta zabaltzeko plangintza egin zen. Halaber, hainbat hobekuntza-ekintza proposatu ziren.

## Portugalete

Portugalete Hiriak 700. urteurrena beteko du 2022an. Hori dela eta, udalak Historia eta Kultura Ondarearen Interpretazio Plana egiteko eskatu zion Eusko Ikaskuntzari; hamahiru interpretazio-elementu diseinatuko dira, hirigune historikoan zehar kokatzeko.

## Urraulbeiti

Eusko Ikaskuntzak gainbegiratuta, Gemma Piérola Narvarte Nafarroako memoria historikoaren dokumentu-funtseko historiagile eta ikertzaileak “1936-1939. Gerra Zibila eta haren aztarna ibarrean” artikulua idatzi zuen, Urraulbeitiko Ibarra. XX. mendeko irudiak eta testigantzak liburu kolektiboan jasotzen dena.

## Donibane Lohitzune

- |            |  |
|------------|--|
| 2020-01-24 | Hitzaldia: Histoire des sorcières de Zugarramurdi. Beñat Zintzo-Garmendia            |
| 2020-02-04 | Hitzaldia: L'évolution du rôle des femmes dans la pastorale en Soule. Emilie Sentucq |
| 2020-09-18 | Dokumentala: Sans Nom Sarea. Beñat Iturrioz  |
| 2020-10-02 | Hitzaldia: Emakumeak euskal dantzetan: gezur baten historia. Oier Araolaza           |
| 2020-10-16 | Hitzaldia: 3 aholkulari sozialista Agirreren gobernamenduan. Patxi Zamponi           |

## Biarritz: bekak

Biarritzeko Udalak bost ikerketa-beka eman zituen: hiru doktoregaien lanetarako eta bi masterretarako.



### Manuel Lekuona Saria 2020

Eusko Ikaskuntzaren saririk aintzinenaren 37. edizioak Jose Ramon Etxebarriaren (Gernika, 1948) bizi-ibilbidea aitortu nahi izan zuen. Bilboko Goi Ingeniaritza Eskolako industria-ingeniariatzako lizentziaduna da, eta EHuko doktorea; Udako Euskal Unibertsitatearen sorkuntzan parte hartu zuen 1973an, eta irakasle aritu zen bertan, EHuko Bilboko Zientzien Fakultatean eta Bilboko Goi Ingeniaritza Eskolan. 2010ean, erretiroa hartu zuen. Lan- ibilbide osoan zehar, zientziaren eta teknologiaren inguruko testuak idatzi ditu, euskaraz.

Ildo horretan, Jose Ramon Etxebarriak unibertsitateko ikerkuntza- eta irakaskuntza-arloetan euskararen normalizazioari egindako ekarpen garrantzitsua hartu zuen kontuan epaimahiak; izan ere, ekarpen horri esker, zientzia-komunitaterako lexikografia finkatu da, komunikazio globaleko teknologia berrien laguntzarekin.



## Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria 2020

Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien curriculumik onena saritzen duen Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Sariaren hogeita bosgarren urteurrenean, nazioarteko harremanetan doktorea eta giza eskubideen sustatzaile aktiboa den Mikel Mancisidor de la Fuenteren (Bilbo, 1970) lana aitortu zen.

Mikel Mancisidor Nazio Batuen Erakundean egin dituen ekarpengatik nabarmendu da, batez ere bi arlo hauetan: gizakiak ura izateko duen eskubidean eta gizakiaren zientziarako eskubidean. Lan bikain horri esker, Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidean eraginik handiena izan duen euskalduna da, René Cassinen atzetik.

Azaroaren 4an egin zen saria emateko ekitaldia, Bilbon. Bertan izan ziren Iñigo Urkullu, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria, Ana Urkiza, Eusko Ikaskuntzako lehendakaria, eta Txomin Garcia, Laboral Kutxako lehendakaria, baita sariaren epaimahaiko unibertsitate-ordezkariak ere.



## Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gazte Saria 2020

Alexander Gurrutxagak eta Joana Otxoa de Alaizak irabazi zuten bigarren edizioa, “Txori kantazale. Xabier Lete berrezagutzen” proiektuarekin. Izenburuak dioen bezala, Xabier Leteren lanaren berrirakurketa bat da, gazteen ikuspuntutik; gazteei zuzenduta dago, hain zuzen ere, musikariaren legatua haiei hurbiltzeko helburuz.

Xabier Lete poeta eta abeslariaren lana hedatzea eta publiko berrien eskura jartzea zen proiektuaren helburua. Horretarako, disko-liburu formatuan jasota geldituko den musika-errezzaldia antolatzeko asmoa zuten.



## Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria Sariak 2020

Honako hauek izan ziren Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria Sarien 2020ko edizioko irabazoleak: Ohorezko Jean-Michel Larrasquet Saria: Claude Iruretagoyena; Euskal Kulturaren Saria: Eneritz Zabaleta, *Le droit de la langue basque. Etude Comparée France, Espagne* ikerlanagatik; Ikus-entzunezko Onenaren Saria: Beñat Iturriotzen Sans Nom Sarea dokumentala. Sariak banatzeko ekitaldia atzeratu egin zen, osasun-egoerak egiteko aukera eman arte.

# ZABALKUNDEA




**RIEV, 64, 1-2**

Sei artikuluk osatzen dute RIEV aldizkariaren ale berriaren aurkibidea. Honako hauek hartu dute parte Tribuna atalean: Esteban Anchústequi-Igartuak, Jon Azkunek, Marije Goikoetxeak, Caroline Guibetek, Xabier Isasik eta Agustín Zubillagak. Horiez gain, bost albiste eta zazpi erreseina daude.

## Erdi Aroko iturri dokumentalak

Felipe Pozuelo Rodríguez historiagileak Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako artxibategietako Erdi Aroko 35 agiri (1332-1518) transkribatu zituen. Fuentes Documentales Medievales del País Vasco bildumaren 154. alean argitaratu dira.





### Lekuona Saria: Xabier Amuriza

Manuel Lekuona Saria bildumaren 36. aleak 2019ko irabazlearen, Xabier Amuriza Zarraonaindia bertsolariaren, autobiografia jasotzen du. Lehen zatia euskaraz eta gaztelaniaz dago, eta bere bizitzako unerik garrantzitsuenak gogoratzen ditu Amurizak; bigarren zatian, bibliografia eta diskografia osoa zehazten da.



### Memoria

Eusko Ikaskuntzak bere jardueren balantza eta lortutako emaitzak Memoria argitalpen korporatiboan jasotzen ditu. Formatu bikoitzeko argitalpena da, paperean eta bertsio digitalean kaleratzen baita, eta Eusko Ikaskuntzaren hiru hizkuntza ofizialetan aurkezten dira edukiak.



### Koadernoak: Mediatika, Zainak eta Vasconia

Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación aldizkariaren 18. aleak askotariko gaiak lantzen dituen 15 artikulu jaso zituen; nolanahi ere, komunikabide digitalen inguruko ikerketak dira nagusi.

Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía argitalpenaren 38. aleak zazpi artikulu biltzen ditu guztira, bi ataletan banatzen direnak: batetik, Ikerkuntzako zientzia-artikuluak; bestetik, Testigantza eta biografia etnografikoak.

Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía aldizkariaren 44. aleak, azkenik, askotariko gaiak lantzen dituzten bost artikulu kaleratu ditu online edizioan, Biography & Parliament EHUko ikerkuntza-taldearen laguntzarekin.



### Euskonews

Gure eremuan zientziari, kulturari eta gizarteari buruzko argitalpen elektronikoen aitzindari den Euskonews aldizkariak beste hamaika ale argitaratu zituen; horrela, 756 ale dira dagoeneko kaleratutako zenbakiek sortu zenetik 1998an.

[www.euskonews.eus](http://www.euskonews.eus)



### Urteko Galdera

Garrantzi handiko eztabaidea planteatu zen hausnarketa leihoko honetan: “Zer hezkuntza-sistema behar dugu XXI. mendeko erronkei aurre egiteko?”. Urtean zehar, 23 espezialistek (15 emakumek eta 8 gizonek) sinatutako 20 artikulu jaso ziren bertan.

[www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/urteko-galdera](http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/urteko-galdera)



### Solasaldiak

Eusko Ikaskuntzak lantzen dituen arloekin bat etorri, ikus-entzunezko formatuko elkarritzeten Solasaldiak atalak hainbat gai landu zituen, hala nola, euskal hezkuntza-sistema, interseksionalitatea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, ongizate publikoa, trantsizio ekologikoa, aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan proiektua eta bizimodu berriak Arabako landa-eremuan. Ana Urkiza Ibaibarriaga, Eusko Ikaskuntzako lehendakari berria, izan zen Solasaldiak ataleko iraileko protagonista.

[www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/solasaldiak](http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/solasaldiak)



### Asmoz ta Jakitez

Eusko Ikaskuntzaren informazio-buletinak hilero aditzerak ematen du, hiru hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez), erakundearen berri. Hamaika ale eman zituen argitara; horrela, guztira 328 ale argitaratu direlarik. Webgunean daude ikusgai.

[www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/asmoz-ta-jakitez](http://www.eusko-ikaskuntza.eus/eu/asmoz-ta-jakitez)



## Webgunea

Webgunea etengabe eguneratzen da jarduerak, albisteak eta eduki berriak sortu ahala. Bestalde, eremu pribatuaren erakundeko kideentzat leku berezi bat dago, dokumentu funtsak kontsultatzeko, proiektuetan parte hartzeko eta erakundeko arduradunekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera izan dezaten.



## Eusko Ikaskuntza irrati publikoetan

EITB euskal irrati publikoaren bi emisoretako 46 saiotan hartu zuen parte, askotariko gaien inguruan.

Euskadi Irratiko **Kultur Leihoa** magazineko 10 saiotan jardun zuten; Radio Euskadin, berriz, 36 saiotan; astero, txandaka, **Iflandia** eta **La mecánica del caracol** irratsaioetan hartu zuen parte.

Nabarmentzekoa da Eusko Ikaskuntzak Radio Euskadin egiten duen asteroko kolaborazioa 500. ediziora iritsi zela.



## Sare Sozialak

Gaur egun, erakundearentzat beste komunikazio-bide bat dira sare sozialak, eta zabalkundera eta erabiltzaileekiko zuzeneko elkarritzetara bideratuta planteatzen du sare sozialetako estrategia.

Lau sare dinamizatzen ditu, eta maiztasunez eguneratu: LinkedIn, Twitter, Instagram eta Facebook. Beste plataforma batzuetan ere badago, ordea, hala nola Youtube eta Flickr-en.

# ERAKUNDEA

---

## Kontseilu Errektorea

Kontseilu Errektorea da Eusko Ikaskuntzaren Gobernu eta Zuzendaritza Estrategikoko Organoa:

**Lehendakaritzaz:** Iñaki Dorronsoro eta Ana Urkiza, hurrenez hurren

**Lehendakariordetzak:** Anjeles Iztueta (Araba), Rosa Miren Pagola eta Juan Luis Moragues, hurrenez hurren (Bizkaia), Xabier Alkorta (Gipuzkoa), Asier Barandiaran eta Mikel Aranburu, hurrenez hurren (Nafarroa), eta Eguzki Urteaga (Ipar Euskal Herria)

**Kideak:** José Félix Basozabal eta Asier Etxenike, hurrenez hurren (Araba), Juan Luis Moragues eta Zelai Nikolas, hurrenez hurren (Bizkaia), Manu Olariaga (Gipuzkoa), Mikel Aranburu Zudaire eta Isabel Elizalde, hurrenez hurren (Nafarroa), Antton Maya eta Isabelle Ajuriaguerra, hurrenez hurren (Ipar Euskal Herria)

**Idazkaritza Nagusia eta Diruzaintza:** Ana Urkiza eta Iñaki Zabaleta, hurrenez hurren

**Lantalue profesionalaren ordezkaria:** Josune Etxaniz

**Zuzendaritza:** Arantzta Cuesta

**Erakunde sortzaileen ordezkariak:** Inmaculada Sánchez (Arabako Foru Aldundia), Andoni Iturbe eta Begoña

de Ibarra, hurrenez hurren (Bizkaiko Foru Aldundia), Garbiñe Mendizabal eta Xabier Barandiaran, hurrenez hurren (Gipuzkoako Foru Aldundia), Mikel Arregi (Nafarroako Foru Gobernua), Beñat Arrabit (Euskal Hirigune Elkargoa)

## Ipar Euskal Herriko Kontseilua

**Lehendakaritzaz:** Eguzki Urteaga

**Lehendakariordetzaz:** Claude Mehats

**Diruzaintza:** Jean-Claude Larronde

**Idazkaritza:** Argitxu Etchandy

**Kideak:** Isabelle Ajuriaguerra, Laida Camblong, Argitxu Camus, Viviane Delpech, Anne-Marie Galé, Jean-Marie Izquierdo, Virgil Joseph-Alexandre, Antton Maya, André Péés eta Maitena Urmeneta

## Lantalue profesionala

Olatz Agirre, Beatriz Akizu, Idoia Alberro, Ana Amonarriz, Arrate Arin, Nerea Beldarrain, Arantza Cuesta, Miren Epalza, Miren Etxabe, Josune Etxaniz, Leire Gaceo, Jaione Irureta, Koro Muro, Amaia Nausia, Eva Nieto, Oihana Zamponi.

## Batzarrak

### Eusko Ikaskuntzako Batzar Nagusia

Hiru Batzar egin ditu erakundeak 2020an: irailaren 19an, Urteko Batzarra; abenduaren 16an ezohiko saioa; eta urriaren 10ean, Ipar Euskal Herriko Batzarra, Hendaian.

Lehenengo batzarrean, Ana Urkiza Ibaibarriaga erakundeko lehendakari aukeratu eta Kontseilu Errektorearen zati bat berritu zen. Bigarrenean, Isabelle de Ajuriaguerra Kontseilu Errektoreko Ipar Euskal Herriko kide izendatzea onetsi zen. Urriaren 10eko saioan, urteko jardueren balantza egiteaz gain, Eusko Ikaskuntzak eta Hendaiko Udal Kontseiluak sinatutako lankidetza-hitzarmenaren berri eman zen.

### Lehendakaritzaren 2020-2024 aldirako programa

Ana Urkiza lehendakari-kargua hartu duen zortzigarren pertsona, eta lehen emakumea izan da erakundearen 102 urteko historian. Batzarrean gehiengoak onartu zuen 2020-2024 aldirako programa, Eusko Ikaskuntza Euskal Herriko gizartea eta erakundeak implikatuko dituen herri-estrategia bat garatzeko erreferente bihurtzea baita helburu nagusia. Erakundearen azterketa sakonetik abiatuta, ondorengo ildo estrategikoak zehaztu ziren epe labur eta ertainerako:

- Lan-agenda propioa finkatza eta lantza.
- Goi-mailako lan-proiektuak gauzatza.
- Harreman-sarea handitza, Euskal Herrian zein Europaren aliantza estrategikoak sortuz.
- Euskal lurraldetasuna indartza, herri-ikuspegia hedatuz eta lurralte guztientzako agenda bateratua landuz.


Ildo horiek osatzeko, zeharkako hainbat ekimen zehaztu zituen: bazkideen partaidetza sustatzea, gazteei eta haien ahalduntzeari arreta berezia eskainiz; erakundearen posizionamendu-estrategia ezartzera; barne-gobernantzako eredua finkatza; finantzazio-iturriak egonkortzea eta hedatza.



## Erakundea

### Bazkideak

### Lurraldeka




### Sexua



### Bazkide mota



### Bataz besteko lantaldea 2018-2021



### Heriotzak

#### Gurutzi Arregi Azpeitia (1936-2020)

Eusko Ikaskuntzaren berreraketan hartu zuen parte erakundearen bigarren etapan, erantzukizun garrantzitsuekin: idazkariordea (1979-1994), Antropologia-Etnografia atalaren sortzailea eta lehendakaria (1979-1986), eta idazkari kudeatzailea (1982-1990).

#### Juan José Goirirena de Gandarias (1947-2020)

Eusko Ikaskuntzako lehendakaria 1997tik 2002ra. Beraren agintaldian zehar, erakundea aitzindaria eta liderra izan zen sarean euskal zientziari eta kulturari buruzko edukiak sortzen.

#### Joan Mari Torrealda (1942-2020)

Manuel Lekuona Saria eskuratu zuen 2014an. Soziologoa, komunikologoa, editorea, euskaltzalea, humanista, herri baten garai baten eta memoriaren kronista eta gizartearren eta ideien analista.

### 2020an utzi gaituzten bazkideak

Juan Pedro Arraiza Rodríguez-Monte, Mikel Barriola Etxeberria, Mercedes Gómez Estíbaliz Deliciaga, Julián Lucas de la Fuentes, Enrique Múgica Herzog, Alberto Pérez de Laborda Pérez de Rada, M<sup>a</sup> Rosario Zabala Unzurrunzaga.

### 'Eusko Ikaskuntza – The Musical'

Urriaren 2tik 4ra, Eusko Ikaskuntzaren jatorrian oinarritutako ikuskizuna eta ikerketa musicala aurkeztu zuten Orion.

### Euskaraldia

Eusko Ikaskuntzako Kontseilu Errektoreak eta langileek euskararen aldeko konpromisoa berretsi zuten, azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte Euskaraldia gizarte-ekimenaren bigarren edizioan buru-belarri parte hartuz. Gainera, erakundearen bost lurralde-bulegoak "Ariguneak" izan ziren, hau da, erakundeko langileen, bazkideen eta kolaboratzaileen artean hizkuntza-ohitura berriak bultzatzeko eremuak.



## Bikain ziurtagiria

Abenduaren 15ean, Bilbon, Ana Urkiza lehendakariak ordezkatuta, Eusko Jaurlaritzaren BIKAIN Euskararen Kalitate Ziurtagiria jaso zuen Eusko Ikaskuntzak. Goimaila aitortuz, Eusko Ikaskuntzak euskararen presentzian, erabilera eta kudeaketan maila goreneko normalizazioa lortu duela egiaztatzen du ziurtagiri horrek.



## Berdintasun Plana

2019an, Kontseilu Errektoreak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Ikaskuntzaren I. Plana (2019-2022) onartu zuen. Planak lau printzipio ditu oinarri: feminismoaren paradigma, genero-ikuspegia, interseksionalitatea eta emakumeak ahalduntzea.

2020an, hiru helburu eta dagozkien ekintza-ildoak ezarri zituen plan eragileak:

- Berdintasunean oinarritutako barne-antolamendua sustatzea.
- Berdintasunaren kultura eta balioak gehiago garatzea.
- Proiektuetan genero-ikuspegia sistematikoki ezartzea.

Bestalde, aldaketa garrantzitsuak izan ziren maila instituzionalean, Estatutuetan berdintasun-irizpidea txertatu baitzen, Batzar Nagusiak hautatzen dituen pertsonen % 40 emakumeak izateko. Gainera, Eusko Ikaskuntzak emakumezko bat izendatu zuen lehendakari, estreinakoz: Ana Urkiza.

## XVIII. Kongresua: liburuaren aurkezpena

Otsailaren 26an, Eusko Ikaskuntzen XVIII. Kongresuaren liburua aurkeztu zen Donostian, 2018ko udazkenean egindako foro garrantzitsu hartatik ateratako ondorio eta gomendioetatik abiatuta Eusko Ikaskuntzak abian zituen lan-programekin batera.

